

Informazio-zirkularra: 2022/05

Hernani, 2022ko maiatzaren 4a

ZERGA-ARLOA – ERRETIROA ETA BGAEak

Erretiroa hartzeko asmotan bazara, kontsultatu zure egoera pertsonala gure aholkularitza-bulegoan, batik bat BGAErik baduzu.

BGAEetako eskubide bateratuak edo prestazioak lan-etekin gisa ordaintzen dira PFEZaren zerga-oinarri orokorrean.

Murritzapen aplikagarri posibleak ongi aprobetxatzeko, gomendatzen dizugu Brintzaren Zerga Departamentuan kontsulta egitea. Aholkularitza emango dizugu.

FAKTURAZIO-EPEAK

Enpresa batek bezeroei fakturak egiteko eta bidaltzeko epeak eragiketaren eta faktura bidaltzen zaion hartzailearen arabekoak dira.

Hartzaile partikularrak:

Fakturak eragiketaren sortzapen-datan egin eta bidali behar dira. Ohikoena eragiketak zerbitzua ematen den datan sortutzat ematea da.

Laburpen-fakturen kasuan, gehienez ere hilabete naturaleko azken egunean egin behar dira.

Enpresariak:

Faktura arrunten eta laburpen-fakturen epeak berberak dira: sortzapen-dataren hurrengo hilabeteko 16. egunean egin eta bidali behar zaizkie bezeroei.

Europar Batasunaren barruko fakturei dagokienez, ondasunen garraioa hasi eta hurrengo hilabeteko 16. eguna baino lehenago egin eta bidali behar dira.

Zigorak:

Fakturak berandu bidaltzeak faktura guztien zenbatekoaren % 1eko zigor proportzionala ekar dezake.

Fakturarik egiten ez bada, bidali gabeko fakturen zenbatekoaren % 2koa izan daiteke zigorra.

Ogasunak ezin badu jakin zein den fakturatu gabeko eragiketen zenbatekoa, faktura bakoitzeko 300 €-koa izango da zigorra.

LAN-ARLOA

Lan-jarduera kontrolatu eta irudia erabiliz gero langile bat zigortzeko, jurisprudentziak ezartzen du langileei eta haien lege-ordezkariei jakinarazi behar zaiela zaintzarako kamerak instalatu direla, baldin eta halakorik badago, baita non eta zertarako instalatu diren ere.

Nahikoa izan liteke toki ikusgarri batean kartel bat jartzea, baina, hala eta guztiz ere, gogorarazten dizuegu oso gomendagarria dela komunikazio fede-emaila bat egitea, zalantzarik egon ez dadin langileek informazio hori jaso dutela.

ARLO JURIDIKOA

Ezgaitze judizialaren prozedura beharrezkoa da pertsona bat bere eskubideak baliarazteko gai ez dela xedatzen denean.

Familiako norbait ezgaitua badago **gaixotasunagatik edo urritasun fisiko edo psikologiko larriengatik** eta ondorioz ezin bada bere kasa moldatu, haren ahaideek edo pertsonarik gertukoenek haren ezgaitzea eskatu eta tutore bat izenda dezakete hura babes dezan eta haren interesak zaindu ditzan.

Egoera horretan dagoen ahaideren bat dutenek aholkularitza eska dezakete Brintzaren Departamentu Juridikoan.

Gogorarazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoan kalitatezko zerbitzua emango dizuegula arlo hauetan: diru-erreklamazioak, ordaindu gabekoak, saleroste- eta errentamendu-kontratuen arloko aholkularitza eta idazketa, herentzien tramitazioa, testamentuen arloko azterketa eta aholkularitza pertsonalizatua, erretiroak eta ezgaitasunak, eta abar.